

7.-LENENGO EUSKO JAURLARITZA

(Berasategi-Domingez)
(1936'KO Guda Euskalerrian)



*Jose Antonio Agirre'ren ziña
Gernika'ko Batzar Etxean.*

*“Jaungoikoaren aurren apalik
euzko lur gaiñean zutunik
asabearen gomutaz...
zin dagit”*

Euskaldunentzat larri-une aundia izan zan. Alde batetik demokrazia ta erkala egozan eta bestetik matxi-no ziranen katoliku-izena. Aukeraketa egin bear zan eta euskaldunak demokraziaren alde jarri ziran, zalan-tza aundiak izan ondoren.

Ba-dakigu Erroma'ra joan zirala oitura zuzenen aldeko eritxiaren billa eta artu eben erantzuna ez zan ona izan. Alkartu zeintekaze ezkerrekoakaz, baiña galdu egingo dozue.

Ez da aiztu bear gaiñera, Irujo erkalaen ministro zala.

Erkalari baietza emon jakonean, Madrid'en onartu eben gure Araudia, lege zarretan oiñarritua, nai izan ezkerro Nafarroa be orra sartzekotan eta ekonomi-itu-nak aurrera jarraitzen ebala.

Guda asita egoalako ezin izan zan euskaldunen Lege-Batzarra edo parlamentua aukeratu eta aldirako lege baten bidez onartu ziran Lendakaria ta sailburuak. Gernika'n batu ziran joan al izan ziran udalkideak eta aukeratu eben Jose Antonio Agirre lendakaritzarako eta onek zin egin eban, alboan agertzen dan argazkian ikusten dan lez.

Jaurlaritza onen kidekoak, geienak erkal-zaleak ziran, baiña lau EAJ/PNV'koak: Agirre, Leizaola, Monzon eta Heliodoro de la Torre.

Eritxi ezbaridietakoak izan arren, ondo alkartu ziran Euskadi'n guda amaitu arte. Osasun. Sailburua Franco'tarrak arrapatu eta su-izkillatu egin eben.

Laster asi ziran lanean euren esku eukun lurraldean, geiena Bizkaia.

Gudaritza gertatu eben 45 000 gudarigaz, polizia be bai, dirua atera eben, pasaporteak emon, ikastetxe nagusia eratzen asi ziran medikutzagaz, ikurriña onartu (len Bizkai'koa zana) ereserkia EAJ'rena zana, lege-bidezko izparringia...

Ertzaiñak laster asi ziran lanean eta Euzkadi onune edo oasi bat biurtu zan giro latz aretan, naizta Bilbao'ko espetexeetan ilketan izan 1937-01-04'an. Bilbao'n bonbaketa bat izan zanean kaleetan arriskuan egozan, espetxeko arerioak arriskurik ez eukala jaki-ñik, bertara joan eta espetxeratuak eta zaintzailleak jaramon aundirik egin barik, ilten asi ziran. 220 il ebe-zan egun baten. Nortzuk ziran iltzaille oneik? Bilbao'ra batez be Gipuzkoa'tik, etorriak.

Au da Eusko Jaurlaritzaren orban bakarra eta euskaldunak ez eben ori ukatu. Batzuk Monzon'en burua eskatu eben, baiña Agirre'k ez eban kendu bere lekutik. Ajuriagerra kentzearen aldekoa zan.

Dana dala, Euskadi'n ez zan jokatu beste leku batzutan lez. Eleizai itzaltasuna izan jaken eta zaindu, gizartean ez zan iraultzarik gertatu eta beste iñon baiño politika-askatasun geiago egoan emen.

Olazar'tar Martin'ek